

• **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?** Gure proiektuan itunak gure artean osatzen ditugu gehienbat.

Haitzek argazki euskarriaren sare soziala prestatuko du, erabiltzaileek gure euskarriarekin ateratako argazkiak sarean zintzilikatzeko.

Gartxot gure enpresaren bezero zerbitzuan zentratuko da, herriko udaletxeetako proposamenak irakurri baloratu eta erantzuteko.

Izadik aldiz arazoak dituztenei lagunduko die, gure 12 orduko laguntza esakiniz.

Enekok marketing kainpaina eramango dute aurrera, bezero berriak lortu eta gure produktua zabaltzeko.

Nagorek gure enpresaren diru sarreraz arduratuko da, kontrolpean eduki eta gure mozkinak guregarana iristen direla zihurtatzeko.

Bestalde, enpresa batekin hitzartuko dugu gure produktuaren moldea sortu eta fabrikatzeko.

• **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?** Guretzako itunak behar beharrezkoak dira, itunak errespetatu gabe edo bete gabe gure produktuak ez duelako arrakastarik edukiko eta proiektua pikutara joan ahal delako. Dena betetzen bada, etorkizuna ikusten diogun proiektua dela usten dugu, dena ondo eginda, produktu eraginkor, interesgarri eta egokia sortu dugulako.